

Año LXXXII. urtea

279 - 2021

Enero-abril

Urtarrila-apirila



# Príncipe de Viana

SEPARATA

---

## Euskarazko literaturak 2020an zer?

Ángel ERRO JIMÉNEZ

---

# Sumario / Aurkibidea

## Príncipe de Viana

Año LXXXII · n.º 279 · enero-abril de 2021  
LXXXII. urtea · 279. zk. · 2021ko urtarrila-apirila

GUSTAV HENNINGSEN / MARISA REY-HENNINGSEN

Homenaje / Omenaldia

Ignacio Panizo (coord./koord.)

Vol. II. lib.

ESTUDIOS DE INVESTIGACIÓN EN HOMENAJE  
A GUSTAV HENNINGSEN Y MARISA REY-HENNINGSEN /  
IKERKETA LANAK, GUSTAV HENNINGSENEN  
ETA MARISA REY-HENNINGSENEN OMENEZKOAK

**Entre impostores anda el juego en el Siglo de Oro. Dos vizcaínos  
ante la Inquisición y unos conversos toledanos próximos a Garibay**

Miguel F. Gómez Vozmediano

13

**Un formulario de la Secretaría de Aragón del Consejo de la Inquisición  
(BC, ms. 2168)**

Anna Gudayol

41

**Las cartillas editadas en Estella e incautadas en Medellín  
por la Inquisición (1561)**

Javier Itúrbide Díaz

59

**El Tribunal de Navarra y sus funcionarios inquisitoriales:  
algunas observaciones**

Consuelo Juanto Jiménez

87

**Goya investigado por la Inquisición: la censura de los *Caprichos* en 1804**

José María Lanzarote Guiral

105

**El «Informe del inquisidor Avellaneda» sobre las complicidades brujeriles  
en los valles centrales y orientales del Pirineo navarro**

José M. Floristán Imízcoz, Jesús Moya Mangas

121

# Sumario / Aurkibidea

<b>La Inquisición en Tudela durante los siglos XVI y XVII: presencia e incidencia social</b> Iñigo Pérez Ochoa	165
<b>La huella de la Inquisición en la Biblioteca de Navarra</b> Roberto San Martín Casi	193
<b>Los memoriales como fuente para el estudio de la Inquisición en el Tribunal de Navarra (1609-1621)</b> Bárbara Santiago Medina	247
<b>De comisarios, confesores y vecinos: la proyección de la Inquisición a finales del Antiguo Régimen</b> Marina Torres Arce	275
<b>Los niños como víctimas y los niños como verdugos en la caza de brujas: Navarra, siglo XVI</b> Jesús M. Usunáriz	301
<b>Volver a las relaciones de causas. El ejemplo de los berberiscos del reino de Granada</b> Bernard Vincent	327
<b>LOS TRABAJOS Y LOS DÍAS DEL AÑO 2020 / 2020ko LANAK ETA EGUNAK</b>	
<b>Tesis doctorales sobre temática navarra de ciencias humanas, sociales y jurídicas, leídas en 2020</b> (Según la Base de datos Teseo del Ministerio de Educación)	343
<b>Narrativa de autores navarros en castellano, año 2020</b> Mikel Zuza Viniegra	351
<b>Euskarazko literaturak 2020an zer?</b> Ángel Erro Jiménez	355
<b>Donación del fondo bibliográfico y documental Gustav Henningsen y Marisa Rey a la Universidad Pública de Navarra</b> Iñaki Montoya Ortigosa	359
<b>Formación en Archivística y Gestión Documental en la Universidad de Navarra</b> Yolanda Cagigas Ocejo	365

# Sumario / Aurkibidea

<b>Apuntes sobre etnografía, folclore y cultura tradicional</b> David Mariezkurrena Iturmendi	371
<b>El alivio y reparo. La forma audiovisual</b> Marga Gutiérrez Díez	379
<b>Proceso de decantación. Exponer en 2020</b> Mireya Martín Larumbe	391
<b>Exposición «Maleficium. Navarra y la caza de brujas. Siglos XIV-XVII» (Archivo Real y General de Navarra, julio-diciembre, 2020)</b> Jesús M. Usunáriz	399
<b>Carlos Cánovas</b> Alicia Ezker Calvo	407
<b>Discurso Premio Príncipe de Viana 2020</b> Carlos Cánovas Ciaurriz	425
<b>Currículums</b>	429
<b>Analytic Summary</b>	435
<b>Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals</b>	441

# Euskarazko literaturak 2020an zer?

Ángel Erro Jiménez

Escritor / Idazlea

[angerro@yahoo.es](mailto:angerro@yahoo.es)

DOI: <https://doi.org/10.35462/pv.279.15>

Pandemiaren urtea deitutakoak, euskarazko nafar literaturari dagokionez, zer eman duen azaltzen hasi aurretik, beharbada aurreko urteari egin beharko genioke erreferentzia txiki bat, 2019an hiru liburu plazaratu zuen Iñigo Astizek (Iruñea, 1985), guztiak poesiarekin zerikusia zutenak, baina bakoitza genero ezberdin batean kokatua (haur literatura, poesia eta itzulpena), aurtengo Euskadi Sarietako bat eskuratu zuen, haur eta gazte literaturarena, hain zuzen, *Joemak eta polasak* izeneko lanarekin. Ez zen saritua gertatu zen nafar egile bakarra, azkenaldian gertatzen ari den bezala (hemen aipatu dugunez, Nafarroako euskarazko literaturaren prestigiotze eta legitimatze lanaren parte ez txiki bat kanpoan ematen ari delarik), harekin batera ere saritua gertatu zen, ilustrazio arloan, Miren Asiain Lora (Iruñea, 1988), *Un millon de ostras en lo alto de la montaña* liburuan eginiko lanagatik.

Sarien ataletik atera gabe, 2020eko «Iruña Hiria» Poesia Sariketaren euskarazko saria Oihane Zuberoa Garmendia Glariak (Erronkari, 1993) eskuratu zuen, urte horretan bertan Denonartean argialetxeak kaleratutako *Bidaia (H)ariketak* lanarekin. Urte horretan 18 lan aurkeztu ziren lehiaketara. Epaimahaiaren iritziz, lan irabazlea «hizkuntza maila jasoko olerki-bilduma da, freskotasuna dariona eta kultura klasikoz jantzia; bidaia inizatiko baten barna garamatza, hausnarketa anitzak sortzeko egina eta sentimendu paradoxikoak ongi uztartuak agertzen dituen». Igor Estankona kritikoaren iritziz, «ustebakoa, guria eta sendoa».

Beste sari bati esker 2020an eskuetara iritsi zaigu beste emakume gazte batek idatzitako lana. Maialen Diaz Urrizak (Beltzuntze, Txulapain, 1988) urte horretako Antzerkiko Donostia Hiria Kutxa Saria irabazi zuen, *Herri hura* izeneko antzezlanarekin, 2020an bertan Elkar argialetxeak plazaratuta. Euskaraz 16 obra aurkeztu ziren le-

hiaketara. Iragana gaur egungo begietatik kontatzeko ahalegina eta pertsonaien osaketa nabarmendu ditu epaimahaiak Diazen lanetik. Euskararen goi mailako erabilera eta, bereziki, euskalkiek obrari ematen dioten aberastasuna ere azpimarratu zituen Dorleta Urretabizkaia epaimahaikideak, saria emateko ekitaldian. Diaz Urrizak lehenago hauturantz zuzendutako antzezlanak eginak zituen. Javier Rojo *El Correo*-ko kritikariak *Herri hura*-ren argumentua modu honetara laburtzen du:

Arrazoi desberdinengatik jaioterritik alde egin behar duten bi pertsonaiaren gorabeherak kontatzen dira. Gazteak zirenean jaioterrria utzi zutelarik, beraien bizitzak urrunduko dira ezinbestez. Deserrian biziko dira eta deserria izango da haien mundua. Istorioa bi planotan garatzen da, «orain» (1990eko hamarkadaren hasieran) eta «orduan» (protagonistak berrogei bat urte lehenago herritik atera zirenean), eta bilakaera erakusten duten eszena laburren bidez osatuta dago.

Orain arte esandakoa aski izan liteke nolabait demostratzeko Nafarroan harrobia egon badagoela eta nafar idazleen eszena ia beti maskulinoegira emakume gehiago iristen ari direla, gauza beti pozgarria.

Ez dira hauek 2020eko produktiotik aipatu ahal ditugun emakume bakarrak. Hor ditugu Maddi Ane Txoperena Iribarren hendaiarra baina Lesakan bizi dena eta Antxiñe Mendizabal Aranburu zumarragarra Nafarroan bizi dena. Biek Elkarlanean argitaratu dute. Lehenak *Ene baitan bizi da* eleberria, X. Gazteluma beka eskuratu zuena. Bigarrenak *Odolekoak*. Iraganeko familia kontuak dakartzate biek. Txoperenak Marie izeneko Donibane Lohizuneko gaztearen istorioa kontatzen digu, Parisera doana ikasketak burutzeko eta bide batez bertan neskame ibilitako amatxiren bizipenen atzetik. Mendizabalek, berriz, Iruñean kokatzen du bere eleberria, 1941ean hasi eta 2005era arte kontatuz bertako familia baten historia, hiru belaunalditan zehar, hiru emakumeren bitartez. «Lan anbiziotsua», Ibon Egaña kritikariaren ustez; «kronika historikoari apurka lekua kentzen dio nobelan ama-alaben arteko harremanari buruzko arakatze literarioak, amaiera ausart batean nobela borobildu arte».

Egon da, ez pentsa, gizonezkoek idatzitako eleberri, saiakera, poema liburuak ere. 2020ean Pello Lizarralde edo Jon Alonso bezalako izen pisutsuek ekarri dute liburu berririk. Lizarralde, Erein argitaletxean, ohi duenez, *Argiantza* eleberria plazaratu du, ohikoa duen estilo dotore eta iradokitzailean. 1980ko hamarkadako zinema-industriaren bilakaera du ardatz nobelak. «Herri txikietako zinema aretoak jendez husten hasten diren garaian, Ramon Beitiak, hainbat zine aretoen jabe den enpresa bateko gerenteak, herriz herri hiltzorian direnak bisitatu beharko ditu, enpresari diruzaleak haiekin zer egin erabaki dezan», laburbildu du Aiora Sampedro kritikariak. Javier Rojoren ustez esperientzia estetiko da eleberrian barneratzea, esperientzia estetiko bikaina baina ia thrillerra bilakaturik.

Jon Alonsok, bere aldetik, *Naparra, kasu irekia* argitara eman du, aurreko urtean, 2019an eskuraturako Tene Mujika bekari esker. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak ematen duten beka hau Euskal Herriko historia garaikidea aztertzen edo ikertzen duten lanei esleitzen zaie. Horixe egiten du, hain zuzen, saiakera honek Jose Miguel Etxebe-

rria Alvarez *Naparra*-ren desagerpen oraindik argitu gabea gaitzat hartuta. Liburua bi zatitan banatzen da; lehendabizikoan Naparraren jardun politiko eta armatuaren lekukotza biltzen da, militatzen hasi zen garaietatik hura bortxaz desagertu edo, hobe, desagerrarazi zuten arte (NBEk halakotzat jo du). Bigarren atalean ondorengo 40 urteetako nondik norakoak, familiak bere senidea aurkitzeko egin duen lan handiak, jasotzen dira. Sampedroren hitzetan:

horretarako, desagerpenaren inguruko hipotesien errepassoa egiten da. Egilea zientifikotasunera lerratzen da; iturriak arakatu, aipamenak egin, alderatu, eta abar egingo ditu, oso lan kontrastiboan [...]. Alonsok datu objektiboak eta haiek interpretatzeko gakoak ematen dituenen, egileak aro bateko konplexutasuna irudikatzen asmatzen du. Idazleak iturriak eta sentimenduak elkartzetik lortzen duen testu poliedriko hori bereziki erakargarria gertatu zait niri.

Paragrafo honetan beste bi liburu uztartu nahi ditut, neure gogoan nolabaiteko lotura dutenak, batez ere merezitako arreta baino gutxiago jaso dutela (edo jasotzen ari direla) salatuta entzun baitut han-hemenka. Eneko Aizpurua Iruñean bizi den lazkaotarrak, orain arte, aski modu diskretuan, nobela beltza publikatu izan duenak, *Bidasoan gora* izeneko saiakera literarioa atera du 2020an, berak ere, Jon Alonsok bezala, Tene Mujika bekaren eskutik eta ondorioz Elkarren argitaratu da. Urko Azpitarte Zubizarretak urte bereko azaroaren amaieran sare sozial batean: «Zenbat orri gogoangarria Eneko Aizpuruaren *Bidasoan gora* saiakeran (?). Bikaina iruditzen ari zait liburua. Eta zeinen etsigarria, nire ustez, izaten ari den oihartzun txikia». Jon Abrilek beste txio batean, Beñat Sarasolaren kritika batekin bat eginez, 2021eko urtarrilean: «*Bidasoan gora* da 2020ko liburu onenetakoa, azken urteotako saiakera biribilenetakoa. Tamalez, behar baino oihartzun gutiago izan du». Bitartean aldeko iritziak eta laudorioak biltzen joan da liburua. Idoia Santamaria itzultzaileak: «Liburu zoragarria da *Bidasoan gora*. Goitik behera, mami eta azal. Edukiak eta formak bat egiten dutenean gertatzen den miraria». Aritz Galarragak: «Noiz edo noiz gertatu izan zait, liburu bat irakurri eta, kontxo, liburu hau nik idatzi nahiko nukeen pentsatzea [...]. Aizpurua mintzo da orain, eta nola. Txingudiko paduretan hasi, Xorroxingo iturrian buka, ibai ertzetik, Claudio Magrisek Danubiorekin egin moduan». Paradoxikoki, [armiarma.eus](http://armiarma.eus)-eko Kritiken hemeroteca kritika bakarra du, kritika-edo, azkenengoz 2021eko apirilaren 25ean kontsultatu dudanez. Beraz, beharbada arrazoi eman beharko zaio merezi baino oihartzun gutxiago izaten ari den liburu aintzat hartzekoa dela. Ez bat, bi kritika ditu Luis Garde iruindarraren *Aireportuko musika* eleberriak, Pamielan argitaratuak. Aingeru Epaltzak, gainera, zutabe bat eskaini dio 2021eko martxoaren 9ko Diario de Noticiasen: «2020an euskaraz argitaratutako trepeta literario sendoenetariko bat da *Aireportuko musika*. Hala ere, ez da zalaparta handirik sortzen ari». Tramaren abiapuntua modu honetara laburtzen du Javier Rojo kritikariak: «2027. urtean, Leyre Olcoz, Nafarroako politikari erregionalista, bahitu du EHAS izeneko taldeak. Bahiketa gertatu eta bi urtera, Koldo Lakar idazleari enkargua egiten diote gertakari horien gaineko kontaera egin dezan. Neurri batean politika fikziozko istorio bat da. Eta alde horretatik begiratuta, esan daiteke bertan kontaktzen dena Euskal Herriaren historian gertatutakoari zeharka begira dagoela [...]. Baina gertakariak beren kontaera behar dute, eta Koldo Lakarren bidez horixe da nobelaren bigarren argumentu lerroan es-

kaintzen dena, kontraera bera, “errelatoa”, nola moldatzen eta atontzen den helburu politiko zehatzen interesei egokitzeko».

2020an plazara atera da idazle berri ez hain berri bat ere, izan baduelako euskal literaturan eskarmentu franko, Txalaparta argitaletxean hainbat urtez editore aritu ondoren. Hainbat urteetako idatzi eta esperientzia bital eta politikoak bildu ditu Mikel Sotok *Suak pizten direnean* izeneko poema liburuan, Elkarren eskutik. «90eko Iruñako giro potilikoan kokatzen du Sotok ni poetikoa, aitortza pertsonaletan oinarritutako kontakizunen bitartez, orduko gatazken, beldurren eta indarkeriaren inguruan [...]. Koaderno partikular eta intimo baten aurrean gaude, begirada iraganera luzatzen duen helduarena. Porrotak, zalantzak, minak bideratzeko, erromantizismorik gabe, gordin-tasunez agerian jartzeko, poesiaren arma hartu du Sotok [...]. 90eko kale borroka hartu du gaitzat eta saiatu da behintzat bere historia biografikoa ondo kontatzen, zituen ilusio eta esperantzekin, etsipenak, gogoetak, sufrimenduak, gurera hurreratzen», diosku Aitor Francos poeta eta kritikariak. Irati Majuelok, berriz: «Anekdota heroikoak eta zauri irekiak aurki daitezke, barkamen eta maitasun mezuak. Adoreari zein beldurrari buruz ari zaigu idazlea, muinetaraino bizi izandako ikaraz, ohikoa ez den posiziotik. Haatik, gatazka politikoetan publikoki gutxitan erakusten diren sentimenduak argitara ekartzen ditu, gordinki eta lotsarik gabe».

Orain arte aipatutakoaz aparte, Txalaparta argitaletxean Floren Aoizek idatzitako *Mamuari so, neoliberalismoa versus burujabetza* saiakera laburra eta, Nafarroa Garaitik aterata, Erein argitaletxean Xipri Arbelbide heletarrak idatzitako *Oilarra kukuruka* izeneko saiakera erlijioso, Bilboko Udalaren Miguel de Unamuno XX. sarian irabazle gertatutakoa, plazaratu dituzte.